

# Aretxa gazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko otsailak 19 • 139. zka.



## Ura edangarri bihurtuz



urak ere tratamendua behar du

ALMEN

SAN FRANTZISKO  
XABIER

SAN VIATOR

UMEZAINZA

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



# Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



HEZIBIDE



PARTAIDE  
Ikastolak

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

**MATRIKULA** otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

# zatoz ezagutzera



# Zer iruditzen zaizu neskek ere txino dantza dantzatzea?

**Angel Mayo**

(Langilea)

Bai, ondo. Herriko ohitura zaharra da eta ondo iruditzen zait neskek ere bertan parte hartzea.



**Amaia Elorza**

(Ikaslea)

Ondo, hobeto biek dantza egiten badute, nik behintzat dantzatuko nuke.



**Rosa Arrien**

(Langilea)


Ondo, nik uste dut ohiturak aldatzen joan behar garela. Lehen beharbada gehienbat mutilek hartzen zuten parte jaietan, orain denok hartzen dugu parte.



**Bixente Etxeandia**

(Jubilatua)

Ondo iruditzen zait. Ohitura polita da eta neskek ere dantza egitea nahi badute dantza egin dezatela, ez daukat ezer nesken kontra.



e s k u t i t z a



## Aretxabaletako Udala

Berriro ere jai ekintza batzuen ospakizunak herritarren haserrea sortarazi du eta herritar guztion artean ordaindu beharko ditugu ondasun publikoak jasan dituen kalteak.

Gure herriarentzat hainbeste esanahi eta tradizioa duen Santa Agedako mutilen ospakizunetako jai eta dibertsio giroa ulertzen eta bultzatzen dugu, baina ez dugu ulertzen honelako jaia, berau bultzatzen duten herritarren aurkako erasoak bihurtzea.

Honen guztiagatik, honelako ekintzak burutzea erabaki dutenei horretaz hausnartu dezatela eskatzen diegu eta bide horretatik jarraitzea uko egin diezaiotela.

Erabili diren suzirien jatorriari buruzko zalantzak argitu nahian, herritar guztiei jakinarazten zaie Udal honek ez diela kintoei suzirik eman, ez eta dirulaguntzarik suziriari eros ditzaten.

**GOBERNU BATZORDEA**



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-konseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa, Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**

## Jarlekuak jartzeko lanak astelehenean hasi ziren Iturrigorri frontoian



Obrak irauten duen bitartean berdin berdin jokatu ahal izango da pelotan

Astelehenean hasi zen Amaral S.L. enpresa Iturrigorri frontoian jarlekuak jartzeko obrak egiten. Guztira 300 lagunendako lekua izango dute eta Ibarra futbol zelai-koak modukoak izango dira.

Jarlekuak jarri ondoren, frontoia itxi egingo da eta aldaketa hauekin aurrerantzean hotza, euria eta zarramarren sarrera eragotziko da.

Jarlekuen obrak hilabete inguru iraungo du eta ez du inondik inora pelotarien joko eta entrenamenduetan eraginik izango. Frontoia orain artean moduan erabili ahal izango dute bai herritarrek eta baita pelotariak ere.

Bestalde, frontoira sartu ahal izateko, ezker aldean geldituko den 6 metro zabalerako tartetik egin beharko da.

### Ordenagailu berriak udaletxean

Udalak bost ordenagailu berri erosi ditu kultura, ongizatea, kirolletxea, liburutegia eta sarrerarako. Horietatik lau funtzionamenduan dira dagoeneko eta sarrerakoa ere aurki jartzea pentsatzen da. Hasiera

batean, 1.700.000 pezetako aurrekontua ezarri zuen Udalak erosketa hau egiteko; azkenean Bizkaiaiko Loiu herriko Cesoi micro enpresak egindako eskaintza onartu zuen eta 1.300.000 pta.n erosi ditu ordenagailuak.

## Euskaltegiak ikastaroa Kurtzebarri eskolan

Deklinabidea eta sintaxia sakontzeko eta arlo horietako akatsak zuzentzeko, euskaltegiak 20 ordutako ikastaroa ematen dihardu Kurtzebarri eskolan. Eskaria Kurtzebarri eskolatik bertatik sortu zen, irakasleek aurrean aipatutako arloetan hutsunea nabari zutelako. Horrela Ainhoa Segura euskaltegiko irakasle eskoriatzarra astelehenero bi ordutako ikastaroa ematen hasi zen. Guztira Kurtzebarriko 25 irakasle ari da ikastaroan trebatzen, eta dagoeneko ikastaroaren erdia baino gehiago eman dute.

## EXTRA, berriz ere kioskoetan salgai

Geldiune txiki bat izan ondoren, Extra, Deba Garaiko Gazeta, berriz ere kalean da joan den zapatua ezker.

Oraingo honetan berrikuntza batzuekin datorrigu, astean hiru egunetan kaleratu beharrean, birritan egingo da eta; zapatu eta eguaztenetan hain zuzen ere. Gizartea, kultura eta erreportaiak bezalako atal orokorrak izango ditu nagusi, eta herrietako kronikarik egongo ez den arren, bakoitzean gertatutako gauzarik garrantzitsuenak jakitera emango dira. 24 orriz osatutako Deba Garaiko Gazeta honek, 75 pezetatako prezioa izango du.

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

**IBARRA**  
ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

MEMESA S.L.

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

*Etxabe*  
*harategia*

Durana 4  
☎ 79 16 61



Urtero bezala kaleko giroa protagonista izango da domekan

## Badatoz aratusteak!

### Aurten lehendabiziko aldiz nesken partaidetza izango da Txino dantzan

Aratusteak datozela eta, ekintzaz beteriko egun bat igarotzea baino gauza hoberik ez dago.

Domekan, jai egun honi hasiera emateko, goizeko 10etan txistulariekin diana egongo da. 12etan, berriz, Gazteleku txarangak kaleetan zehar kalejira egingo du. Honekin batera, herriari kolorea emango dioten kuadrilen desfileak izango dira.

### Nesken partaidetza Txino dantzan

Loramendi dantza taldeak ere izango du bere tartetxea datorren domekan, eguerdiko ordubatean Durana kalean "Txino dantza" eskainiko du eta.

Berrikuntza moduan, aurten lehendabiziko aldiz, neskek ere hartuko dute parte aintzinako ohitura honetan. Laura Perez eta

Igone Zaloña izango dira mutilekin batera Txiribito eta bere andrearen gorabeherak dantzatuko dituztenak.

Arratsaldean ere jai-giroak jarraituko du: Gazteleku txarangarekin batera, 7etan, Santa Ageda mutilek azken dantza saioa eskainiko digute plazan. Jarraian, aurtengo mozorro lehiaketaren sari banaketa egingo da eta afal ostean, Gazteleku txarangarekin jarraituko du giroak.

### Martizenean antzerkia

Aratuste martizean ere izango da ekintzarik. Arratsaldeko 3retan "Incansables" txarangak bere ekitaldiari hasiera emango dio. Giroa bete-betean alaitzeko 4,30etan, Ortz Muga antzerki taldearen Sportziak antzezlan egongo da ikusgai herriko plazan. 6,30etatik aurrera, berriz, buruhandiak txarangarekin batera aterako dira kalera.

Ohiturari jarraituz, txinoaren hiletan ospatuko da gauean, 10,30etan Mitarte kaletik hasi eta herriko plazaraino joango da komitiba. Bertan lutoz jantzita eta kandelak eskuan eramatea gomendatzen da.

Ekintza guzti hauei aurre egin ahal izateko, 844.000 pta.ko aurrekontua behar izan du Udaleko kultura sailak.

**LOGOPEDIA  
ZENTRUA**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea  
Tel: 79 79 46  
ARRASATE

**LASAGABASTER**

**Zure Konfiantzazko Denda**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**

**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA



Ikuskizun haundia eskaini zuten operetako partehartzaileek

## Jesus Guridiren "El Caserío" opereta arrakastatsua

Pasa den hilaren 15ean, Leizarra Musika Eskolak, Julian Barrenetxea eta Aretxabaleta Abesbatzak antolatutako Jesus Guridiren "El Caserío" opereta ikusi ahal izan genuen.

Obra hau, 1926ko azaroaren 13an estreinatu zen Madrilgo "Teatro de la Zarzuela"-n. Sasibil baserri inguruan gertatzen den saio honek, euskal ohiturez tartekaturiko

amodiozko trama kontatzen du.

Izugarrizko jende pila elkartu zen elizan, beste batzuen artean, Mariatxen Urkia eta Mari Carmen Etxeandia, soprano eta mezo bakarlarri lanetan entzuteko aukera izan zelarik.

Partaideen ahots indartsu eta zainduek, edonor hunkitzeko moduko soinua sarkorra sortzen zuten. Zorionak!

### Tarta salmenta

Aratuste domekan Almeneko batxiler orokorreko bigarren mailako ikasleek tarta salmenta egingo dute Durana kalean. Helburua ikasbidaiarako dirua ateratzea da, eta beraz, animatu zaitezte erostera.

### Sendotzako errifak

Sendotzako gazte taldeak, Colombiako Espiritu Santo ikastetxeko ikasleentzako bekak lortzeko errifak atera ditu. Saria Pazko bildots bat izango da. Zozketako emaitza apirilaren 2ko Aretxagazetan aterako da.

## Kepa Urraren torturatzailentzat zigor murrizketa eskatu

Fiskalak, 1992. urtean Kepa Urria atxilotu ondoren, torturatzailentzat zigortuak izan ziren, Jose María de las Cuevas, Manuel Sanchez Corvi, Antonio Lozano eta beste hiru kideri ezarritako zigorra gutxitzeko eskatu dio Auzitegi Gorenari.

Errekurtsoan, fiskalak Bizkaiako Audentzi Nazionalak jarritako lau urteko gartzela zigorra, hilabete eta egun bat eta sei hilabete arteko atxilotetara gutxitzea eskatzen du.

## Egin egunkariaren aldeko borondatea

Egin egunkariak jasaten duen etengabeko "boicot" publizitarioari aurre egiteko, dirubilketa antolatu du herriko Hitz egin komiteak. Egunkari honen aldeko laguntza eman nahi dutenentzat buzoi batzuk jarriko dira Urbaltz taberna eta elkarteetan, bertan nahi duenak borondatezko aportazio ekonomikoa egin dezan. Hitz egin komiteak, koadrilei, elkarteei eta baita herritarrei ere animatu daitezela eskatzen die.



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Loramendi 10 • ☎ 79 81 78  
ARETXABALETA



Rodriguez-en eskutik, "Aretxabaleta Saria" jaso zuten. Herriaren inguruko informazio gehiago izateko, beste gauza batzuen artean, Aretxagazeta batzuk ere eman zitzaizkien.

"Everything is lovely" zioten behin eta berriz adibasiak, eta egunero entzuten ohituta gauden kanpai hotsen aurrean ere, harridura aurpegia jartzen zuten.

Aretxabaletan pasatako denboran, musika eta erritmoa gorputzean daramatela argi utzi zuten, Santa Ageda mutilekin atalataikoan irtetzeko arazorik ez zuten izan eta!.

### Adivasiak gure artean

Otsailaren 8 eta 9an Aretxabaletan egon ziren Inazio Galdos eta Gujerat-eko indio talde bat. Herrian egindako egonaldian, Andra Mari Parrokian eta Monjetan mezak eskaini zituzten Adivasi erritora.

Bestalde, Aretxabaletako alkatea den Juan Antonio

**ARAT** atxabaltarrok,  
**UST** ondo pasa  
**TE**  
**98**  
**RRK**

**EGUZKIGRAF** inprimategia

KOOP. E.  
S.COOP.

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 32 34

## Kixkor taberna

**KIXKOR**  
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETA  
☎ 79 20 60

## Gurea taberna

Jatetxea  
eta taberna  
**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 79 20 64

## Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

*Josu Harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 77 03 08

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan*

Araba Ibilbidea, 20 • 79 88 95

## Matikua

*Matikua*  
*Jatetxea eta taberna*

Azatza auzoa • 79 16 68


## Baster alde jatetxea



Sasoiko  
jakiak  
giro one-  
nean

Galartza auzoa  
☎ 79 24 58  
ARETXABALETA

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
◆ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALE-  
TA ☎ 79 68 57

## Jose Mari bodegoia

Eguneko  
menua

Nafarroa, 6  
Tfnoa: 79 20 45  
Aretxabaleta

**Jose  
Mari  
bodegoia**

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 79 92 01

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 79 73 65

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**

Tfno 714845



◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Mitartegarai

*Mitartegarai* Arientza auzoa ARET-  
XABALETA  
*Jatetxea* Tfnoa: 79 17 51



## Amets taberna

**AMETS**

taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 79 01 29  
Aretxabaleta

# ONDO PASAU ARATUSTEETAN



# Familian mozorrotu

## “Seme-alabengatik egiten dugu batez ere”

Banaka baino koadri- lan mozorrotzea beti izaten da erakargarriagoa. Batzuk familia elkartu eta aratuste domekako mozorro plana egiten dute. Herrian badugu honelako abidibe bat, eta sortu duten giroagatik ezagunak bihurtu zaizkigu azken urteotan. Abasolo sendiaz ari gara, hau baita familia guztiak elkartzen dituen abizena.



- Zer azpimarratuko zenukete domeka aratuste egunetik?

Egun osoko ekintza bat izaten da guretzat. Eguna oso goiz hasten da, eta familiako baten etxean denok elkartu eta salda hartzen dugu goizeangoizetik. Ondoren behar diren guztiak prestatu eta ahalik eta animatuen irteten dugu kalera. Bazkaria elkartean egiten dugu eta

ondoren arratsaldeak aurrera jarraitzen du ilunkara arte. Eguerdik parteko giroa izaten da onena, baina egun konpletoa izaten da.

- Aurtengo mozorroaren pistarik emango zenigukete, edo sopesa izan dadin utziko dugu?

- “Once baino bost gehiago” izango da gure aurtengo lema, izan ere H.A.M.A.S.E.I. izango gara guztira mozorrotuko garenak. Guztia esatera ere ez goaz, domeka gainean dugu eta orduan ikusiko dugu elkar. Gure helburua ahalik eta ondoen pasatzea izango da.

- Noiz arte duzue familian mozorrotzen jarraitzeko asmoa?

- Ahal den artean horrela jarraitzea da gure asmoa. Umeak oso pozik eta ondo pasatzen dutela ikusten dugu eta hori da garrantzitsuena. Beraiek aspertu artean behintzat ohitura mantentzea gustatuko litzaiguke.

**murra izango...**

- Ez, diozun moduan generazio desberdinak elkartzean, denei egoki datorkien mozorro bat pentsatu behar da, nagusiei eta gazteei gustatu behar zaie.

Asko garez, tabernetara sartzeko ere arazoak izaten ditugu, eta orduan taberna ibiltari bat urtero eraman izan dugu gurekin; mozorroaren arabera hau ere mozorrotu egiten dugu nolabait esateko, baina gurgildun mahai bat dago bere azpian. Bertan, edari eta jateko zeozer eramaten dugu.

- Guztia ondo antolatuta izaten duzue beraz, baina zertan oinarritzen zarete mozorroa pentsatzerako orduan?

Gure asmoa ez da izaten mozorro originala ateratzea, eta gehienetan mozorro sinpleak pentsatzen ditugu. Egunean bertan, eguneko giroa berotzea izaten da gure nahia, eta bide batez jendearen parte hartzea eragitea.

- Noiztik daukazue familian mozorrotzeko ohitura?

- Hasieran familia bat bakarra zen jaten zena. Beste behin eskolakook elkarrekin jantzi ginen eta artalde oso haundia osatu genuen. Baina talde haundian jazteak antolakuntza haundia eskatzen zuenez, familikook batera jaztea erabaki genuen orain lau bat urte.

- Zerk ematen du familian mozorrotzeko indarra?

- Seme-alabek elkartzen gaituzte. Guk umetan izan ez genuen aukera eman nahi diegu beraiei, aratusteez gozatzen ikas dezatela nahi dugu. Familiari garrantzi haundia ematen diogunez, aratusteez ere egun aproposa da familia batzeko.

- Generazio desberdinak elkartzea, ordea, ez da batere sa-

**DOIKALSE**

**Elektroerosio  
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

**BENGOA  
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta  
mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA



**“Gure zaharrei, bizitzako azkenengo unerarte ilusioa bizirik mantentzen lagundu behar diegu”**

## Ilusioz bizi!

**H**aunditzen naizean...! esaten dute sarri-sarri haurrek, milaka gauza egingo dituztela amesten duten bitartean.

Ikasketak bukatzen ditudanean...!, diote gazteek, biharko egunerako planak egiten dituztenean.

Helduak, berriz, ezkondu, haurrak eduki, lan egoerak finkatu edota beren bizitzari beste edonolako irtenbidea emateko prest dira beti.

Baina, zer gertatzen zaie gure aiton-amonei, adinez zahar eta ezin du izatera iristen direnean?

Ezagutu ohi ditudan banaka batzuei sarri entzun diet ilusioa falta zaiela bizitzen jarraitzeko. Ezer-tarako ez dutela balio. Ez planik, ez ametsik egiteak, asetzen ez dituela.

Zahartzarora iristean, triste bihurtzen dituztenetarikoa gauza bat horixe da, hain zuzen ere: eguna joan eta eguna etorri, gehientsuenak berdina dira. Aldez aurretik badakite biharko eguna nolakoa izango den, eta datorren astekoa, eta hurrengoa...

Ia ziur dakite, denborak zer ekarriko dien beren gain eta pixka

bat gehiago pentsatzen hasten badira... akaso hobe ez pentsatzea, zeren eta behin puntu horretara iritsi ezker, egoera horretara, irtenbidea zein den garbi dakigu.

Hau ikusi, entzun eta onartu ondoren, ordea, ezin gaitezke saiatu bizitzaren legea dela pentsatu eta gure burua konbentzitzen.

Oso bestelako jarrera eta egin-kizuna aurrera eramateko prest egon behar dugu. Gure zaharrei, bizitzako azkenengo unerarte ilusioa bizirik mantentzen lagundu behar diegu. Guretzako leunena edo txikiena izan daitekeen gauza, keinu, hitz, etaabarrek, guztiz alda dezakete beraien biziera.

Egunerokoa pozez bizi eta bihar-ramona ilusioz itxaroten ikastea, ondorengo belaunaldien esku egon daiteke. Ez dugu ez erronka makala. Saiatzeak bakarrik, pena merezi duela uste dut. Bai horixe!

**ANTZIÑE MENDIA BALERDI**

**OSKAR GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**PAGALDAI  
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

**BITXITEGIA**

**MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

# Urkuluko araztegia

## Urtegiko ura edangarria bihurtzen da araztegian

Guztiok ezagutzen dugu Urkuluko urtegia, aisialdirako leku egokia bihurtu baita. Hala ere, gutxi izango dira urtegitik 300 metrotara dagoen araztegia ezagutzen dutenak. Gure etxeetara heltzen den ura kalitate onekoa eta edangarria izan dadin tratamendu egokia ematen zaion araztegiari ari gara berbetan.


Gaurkoan bertara hurbilduko gara uraren tratamendu prozesua gertutik ezagutzeko.

Orain 20 urte inauguratu zen Urkuluko urtegia, 1975ean eraikitzen hasi ondoren. Gure herria hornitzen 83an hasi zen. Araztegia egin barik zegoen artean, baina ura zuzenean herriko ur-biltegiara etortzen zen eta bertan kloroa botatzen zitzaion. Horixe zen ura desifektatzeko modu bakarra. Orain 12 urte, berriz, araztegia martxan jarri zen. Egun, segunduko 500 litro tratatzeko ahalmena du araztegiak eta kontsumoa 220 l/sg.takoa izanik, ondo erantzuten dio eskariari. Gainera, kalitate bikaineko ura edaten dugula jakinarazi digu Jose Antonio Rojo

Urkulu urtegiko eta Deba Harroako koordinatzaileak.

Hasiera batean araztegia Foru Aldundiarena zen, baina gaur egun, Gipuzkoako Ur Partzuegoarena da. Horrela, Ur Partzuegoak ura urtegitan bildu, garbitu eta herrietako ur biltegiara bitarteko horniketa beregain hartzen du. Hortik aurrera urak etxeetara heldu bitarteko fase guztia, berriz, Udalerrri bakoitzari dagokio.

Araztegiaren zeregina uraren tratamendu konpletua egitea da, beraz, herritarrentzako ur horniketa etengabea eman eta ahalik eta ur kalitate onena eskaintzea.



Presatik 300 metrotara dago araztegia

## URAREN TRATAMENDUA

Uraren kopururik haundiena Urbaltz errekatik, bere arrotik, jasotzen du Urkuluko urtegiak. Era berean, beste batetik ere jasotzen du: Eskoriatzako Bolibar auzotik datorren errekatik.

Ur hau tratatu ahal izateko, Urkuluko urtegitik araztegiara hodi bitartez heltzen da ura. Bertan fase desberdinen bidez, ura tratatu egiten da, kalitate oneko ur edangarria bihurtuz. Lehenik eta behin preozonizazio fasetik iragaten da ura, ozonoak urak dituen bakteriak, materia organikoak... oxidatzen ditu eta erreaktibo baten bidez oxidatu diren elementu horiek, uretatik bereiziko dira. Ondorengo fasean, dekantazioan, urak duen zikinkeria guztia behera joango da. Hala ere, oraindik ozono gehiago botatzen da. Honen ondoren ur guztia arezko filtro batzutatik iragaten da, zikinkeria guztia bertan geldituz. Filtroetatik pasa ondoren ura gertu dago gorde eta banatu ahal izateko, baina lehenago fluorra eta kloroa botatzen zaizkio. Fluorrak, hagineta osasuna hobetzeko helburua du (mm/l 1). Kloroak, bestalde, (0,8-1 mm/l) ura estilizatu eta desinfektatu egiten du.

## ZAZPI HERRI UREZ HORNITU

Gaur egun Urkuluko urtegiak zazpi herri hornitzen ditu urez: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta, Soralue eta baita Angiozar eta Osintxu ere. Antzuola hornitzeko proiektua ere badago.

Araztegitik herrietako biltegirako bidea hartzen du urak, kasu batzutan grabitate sistemaz, bonbeatuz beste batzutan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako kasuan esaterako. Bi kasu hauetan herrietako ur biltegiara bitarteko kotak araztegia baino altuera handia-

goan kokatzen direnez, ura bonbeatu beharra dago. Rojoren berbetan, "honek energia gastu handia suposatzen du eta, hasieran gaez bakarrik, hau da tarifa merkeagoa denean, egitea pentsatzen zen. Hala ere, bonbeatzen zen ura ez zen nahikoa eta biltegiek kapazitate txikia zutenez, gaur egun tarifa handiko orduetan ere bonbeatu beharra dago. Gainontzeko herrietara ura eramateko arazorik ez dago eta grabitatez, hau da, sistema automatikoa erabiliz, egiten da. Honek ez du energia beharrik eskatzen.



Uraren kalitatea neurtzeko analisi gela

**“Urak etengabeko kalitate frogak egitea eskatzen du, eta horregatik urtegiako ura hiru lekutan analisatzen da**

## MANTENIMENDUKO LANA

Araztegiaren bost operadore, ofizial bi eta koordinatzailea ari dira lanean. Hauen lana bereziki araztegiaren mantenimendua lana egitea da, honek etengabeko zainketa suposatzen baitu Rojok azaldu duenez: “instalazioen mantenimendua eta kontrola, aldatketak, garbiketak, konponketak, uraren analitika, etabar. Koordinatzaileak jakinarazi digunez, “langile guztiek denetik egiten dute, gainera, beti egoten da egin beharreko lanen bat”.

Araztegia Gipuzkoako Ur partzuergoaren esku badago ere, bertako langileak Cadagua enpresakoak dira, hau baita araztegia eramateko Partzuergoak kontratatuta duen enpresa.


## URAK KALITATE BIKAINA

Rojo Urkuluko koordinatzailearen iritziz, gure etxeetan edaten dugun uraren kalitatea oso ona da eta bete beharreko neurriak ondo betetzen dituela adierazten dute estadistikek.

Baina urak etengabeko kalitate frogak egitea eskatzen du, eta horregatik urtegiako ura hiru lekutan analisatzen da. Alde batetik,

araztegien bertan dagoen analisi gelan uraren analisi minimoa egiten da. Beste aldetik, Eskoriatzako farmazian egunero analisi bakteriologikoa egiten zaio urari eta kasu honetan Rojok Urkulun daramatzan urte guztietan ez dela inoiz arazorik egon gehitu du. Hirugarrenik, Azpeitian dagoen Ibaiderreko araztegien analitika oso burutzen da.

Beraz, orain artean behintzat kalitate oneko ura edaten dugula esan daiteke. Urak bete beharreko analitika frogak betetzen ditu eta oso maila altuan gainera.



Araztegiako kontrol sala

## Bi berbetan

- Urkuluko urtegia 1975. urtean hasi zen eraikitzen, 78an inauguratu eta 83an ekin zion Aretxabaleta hornitzeari. Araztegia 1996an inauguratu zen.

- Aretxabaletan 2.300 m<sup>3</sup> ur kontsumitzen ditugu batez beste egunean. Horrek esan nahi du, biztanleko 383 litro kontsumitzen dugula.

- Egunean 20.000 m<sup>3</sup> batez-beste ur kontsumoa du Urkuluko urtegiak.

- Segunduko 220 litro ur kontsumitzen da.

- Urtegitik araztegiara dagoen kota diferentzia aprobetxatuz, araztegiako instalakuntzen funtzionamendurako energia elektrikoa sortzen da, honek gastatzen den energiaren %50a suposatzen du gutxigorabehera.

- Haginetako osasuna hobetzeko helburuaz, urari fluorra botatzen zaio, (1 mm/l), hau da gomendatzen den kantitatea.

- Urkuluk 10 milioi m<sup>3</sup>tako kapazitatea du eta momentu honetan kapazitatearen %84an dago.

## Jose Antonio Rojo Urkuluko araztegiako koordinatzailea

Jose Antonio Rojo dugu Urkuluko araztegiako koordinatzailea.

Gertu-gertutik ezagutu du Urkulu urtegiaren bizitza, 22 urte baitaramatza bertan lanean.


- Urkuluko araztegien daramatzazun urte guzti hauetatik, lehorterik izan den urterik gogoratu duzu?

89. urtean lehorte handia egon zen, urtegiaren ur-maila oso baxu zegoen, baina ez zen ur-etenik egon.

- Iaz uraren zapore aldaketa bat gertatu zen, zergatik gertatu da eta aurrerantzean ez gertatzeko neurririk hartuko da?

- Bai, urtegitako ura geruza desberdinetan sailkatua dago tenperaturaren arabera. Urtero uztaile eta azaroa bitartean geruzak elkarren artean nahastu egiten dira eta zapore aldaketa hori sor daiteke. Hala ere, urak edangarria izaten jarraitzen du.

Hurrengo hori gertatzen denerako, ikatz aktiboa eta dosifikadorea ditugu eta beharra badago



urari botako diogu.

- Txori, ahate eta bestelako animalien hondakinek eragiten dute uraren kalitatean?

- Egia esan ez, uraren tratamendu prozesua oso konpletoa da. Koruetan saneamendu plana egin zen urtegiari eragin ziezaioketen animalien zikinkeriak eragozteko eta orain araztegi propioa dute. Eragina oso txikia da beraz, eta honek ez du uraren kalitatea gutxitzen.

- Uraren kontsumoak zenbateko igoera izan du azken urteotan?

- Ez du igoera nabarmenik izan hasieran uste zen moduan. Egia da, biztanleria ere ez dela nabarmen handitu. Lehen Foru Aldundiak ez zion Udalarari dirurik eskatzen, baina orain Kortsozioak bai, agian horregatik ere izan daiteke.



# Mendigoizaleak etxean dira

Dagoeneko, Josu Bereziartua eta Inurrategi anaiak etxean dira. Manasluko gailurra egin ez arren, bizitako giroa, esperientzia eta egindako lanagatik pozik daude.

Joan den otsailaren 10ean, Inurrategi anaiak eta Josu Bereziartua etxera iritsi ziren, eta ohikoa den bezala, Murruxok merezitako ongi etorria egin zien.



Felix eta Alberto ongiatorriko egunean

## Haizea eta izotza, etsai nagusi

Tontorrerako lau ahalegin egin ondoren, mendigoizaleek buelta ematea erabaki zuten. Haizea eta izotza etsai nagusiak ziren, beraz, egoera hura ikusirik, aurrera jarraitzerik ez zegoela onartu zuten. Felixek adierazi digun bezala, laugarren ahalegina egindako egun hartan, espedizioan bizitako eguraldirik onena zegoen, baina ordurako, hankek sentimena galdua zuten, eta buelta ematea zuten irtenbide bakarra. Egia da ere, poliki-poliki eguraldiak txarrerantz jo zuela. "Egoera hartan ez dut uste inork aurrera jarraituko zukeenik"

gehitu zuen Felixek.

Manaslu, zailtasun handirik gabeko mendia dela jakinarazi zuten, baita espedizio honetako berezitasuna neguan egitearena zela ere. Kondizionante bakarra, hotzarena zen.

Neguan saiatzeak ere baduela bere alde ona ziurtatu zuten, eguraldia egonkorra da eta jenderik ez dabil. Zorrotzagoa ere badela onartzen zuten, baita erronka bezala oso interesgarria izan daitekeela ere.

## Udaberrian Dhaulagiri

Dagoeneko badute proiektu berria udaberriko, Dhaulagiri, beste zortzi milako bat egiteko asmoa dute eta.

## Joseba Larrinaga, Munduko Kopan bigarren


Otsailaren 8an ospatu zen lasterketa, hasiera batean munduko kross txapelketa izan behar bazen ere, azkenean, homologazio arazoak zeudela eta, Munduko Kopa izendatu zuten.

Algarben antolatutako lasterketa honetan, kategoria desberdinek osatutako lasterketa bakarra burutu zen elbarritu mailan.

Orrokorrean, Josebak hirugarren postuan sartzea lortu zuen, bere kategorian bigarren postua eskuratuz. Mundu osotik gerturatutako 90 pertsona inguruk hartu zuen parte txapelketa honetan. Munduko kopa, golfeko zelai batean lehiatu zen, zirku itoa aldapsu eta azkarra bilakatu.

Algarbetik bueltan, Joseba gustora sentitzen zen lortutako emaitzarekin, eta dagoeneko, hurrengoko lasterketarako prestatzen ari da.

 **% 50ean**  
**Beherapenetako azken egunak**  
 Intxaurtxueta, 5 71 52 96 Larunbat arratsaldetan  
 ESKORIATZA zabalik

ARGAZKI  
  
 Tfnoa: 79 39 20  
 ARETXABALETA

GARBITU S. COOP.  
**Garbiketa orokorrak**  
 Errekabarren 3- Behea  
 Tfnoa: 79 01 28

**OPEL**   
  
**Zerbitzu Ofiziala**  
 ■ **Kotxe marka guztien konponketak**  
 ■ **Zerbitzu guztiak**  
 Basabe Poligonoa, A-1-3 •  
 Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /  
 Fax: 77 17 20  
 ARETXABALETA

## Amaia Garcia

### “Lanerako prest egotea eskatzen digute”

Gaur egun Mondran jokatzeko duen neska honek, betidanik izan du kirola gogoko. Orain futbolean aritzen bada ere, esku-pilota, saskibaloia eta txirrindularitzan ere ibilia da.

#### • Noiz hasi zinen kirola praktikatzeko? Eta futbola?

Ez dut ondo gogoratzen, baina oinez ibiltzen ikasi nuenetik, kirola praktikatzeko dudala uste dut. Futbolean ere, txikitik lagun artean egiten genuen. Orain dela bost urte UDAko taldean jokatu nuen, bertan bi urte egin ondoren, Mondran hasi nintzen.

#### • Zer egin behar da Mondra moduko talde batean jokatzeko?

Geuri eskatzen diguten gauza bakarra, gogoia eta lanerako prest egotea da. Ezaugarri hauek betetzen dituen edonork har dezakela parte uste dut. Ni UDAn nenbilela, beraiek deitu zidaten, baina Aretxabaletako talde hau desagertu zenean, nahi zuten guztiak ere Mondran jolasteari ekin zioten.

#### • Asteazkenetan entrenamendu egiten dituzue? Nolakoak?

Ordu eta erdiko hiru entrenamendu egiten ditugu, eta aste bakoitzeko partidu bat. Taldean jolasteko ikasten dugu, baita fisikoa eta teknika landu ere.

#### • Zuk zein postutan jokatzeko duzu? Golik sartu duzu?

Aurten libre bezala jolasteko dut. Atzean jolasteko dugunok, trankilak izan behar dugu erasotzen gaituztenean. Baloia kontrolatzen jakin behar da, eta ahalegin guztiak egin behar ditugu atezaina bakarrik ez uzteko. Denboraldi honetan gol bakarra sartu dut. Erremate batean buruz sartu nuen Gernikaren aurka jokatuako partiduan.

#### • Nola ikusten duzu nesken futbola gaur egun?



Egia esan, ez dago bat ere ondo ikusita. Talde askok arazoak dituzte. Alde batetik ekonomikoak, eta bestetik, klub askok ez dituztela beraien taldean onartzen. Askok ez daukate entrenatzeko lekurik ere.

Alde horretatik ikusita, gu ondo gaudela esan daiteke.

#### • Zergatik ez da jende asko zuen partiduak ikustera joaten?

Neuk ere ez dakit erantzuna. Jende askok aproba ere ez du egin gure partidu bat ikusteko. Beste kirol gehienetan bezala, nesken kirola indar gutxiakoa da.

Egia da ere, orain dela gutxi jokatu genuen partidu baten ondoren, jende gehiago gerturatzen dela. Partidu hau, istripu batean zauritutako mutil bati laguntza eman asmoz jokatu genuen. Bertara, ohikoa den baino pertsona gehiago hurbildu zen. Handik aurrera, ikusleak ugari direla uste dut.

#### Jarraitzailerik badaukazue?

Gutariko askoren gurusoak dira gure jarraitzailerik, inoiz hutsik egiten ez dutenak gainera.

#### Amaia, txirrindularitzan ere ibilia zara, zer nahiago?

Gogor aritzeko futbola. Txirrindularitza hobby bezala nahiago dut.

## Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren aurkezpena

Dorletako Ama txirrindulari eskolak 1998ko denboraldiko taldea osatuko duten partaideen aurkezpena antolatuko du. Otsailaren 21ean aurrera aterako den ekintza honetan, 1.º eta 2.º urteko jubenilen, 1.º eta 2.º urteko kadeteen, infantilen eta beraien babesleen izenak ere jakitera emango dira. Azken hauek aurreko urteetan bezala “Dorletako Ama Txirrindulari eskolari” bere laguntza desinteresatua eskeintzeko diote. Egun honi hasiera emateko, goizeko 10:30etan Leintz Gatzagako Dorleta Santutegian dagoen Ama Birginari eskeintza egingo zaio. Ordu bete beranduago, 1998ko denboraldirako taldeetako kide eta babesleen aurkezpena egingo da “Gure Ametsa Jatetxean”. Amaitzeko, 12:00etan lunch-a egongo da bertara hurbildutako guztiarentzat.

## Igeri eta aquagym ikastaroak

Kirol txean igeri eta aquagym ikastaroak antolatu dira. Igeriketarako hastapen eta hobekuntza maila emango da eta izen emateko epea zabalik dago. Ikastaroak 20 ordukoak izango dira. Orduetara, berriz, 19:00etatik 19:45etara izango da. Prezioa bazkideentzat 4.500 pta. eta gainontzekoentzat 6.100 pta. Aquagym ikastaroari dago-kionez, 30 orduko saioak izango dira eta nahi izanez gero gimnasia mota hau ezagutzeko dohaineko sarrera izango da. Orduetara taldera moldatuko da. Prezioa 2.000 pta hilean bazkideentzat eta 3.100 pta bazkide ez direnentzat. Izen ematea eta informazioa kirol txean 79 64 61 telefonoz.

# Aratusteak datozela eta...

“Ostegun gizona” egunean hasi eta Aratuste astearteraino, peilak eta torradak egiteko ohitura dago. Egun hauetarako prest egoteko asmoz, hona hemen errezeta bana.

## TORRADAK

### OSAGIAK:

Torradak egiteko:

Esnea

Kanela zati bat

Limoi azala birrindua

Azukrea

Ogia

Torradak frijitzeko:

Arrautzak

Azukrea

Irina

Olioa

Kanela hautsa

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK:

Torradei hasiera emateko, esnea kanela zati eta limoi azal birrinduarekin nahastu behar da, bitartean ogia xerratan moztu eta ontzi batean ipiniz.

Esnea prest dagoenean, ogi zatiak gainetik bota eta apur batean beratzen uztea komeni da, ogiak esnea ongi zurgatu arte.

Ondoren, esnetan bustitako ogi zatiak irina eta arrautzatan pasatu eta olio berotan frijitzen dira, bukaeran, azukrea eta kanela hautsa gainetik botatz.



## PEILAK

### OSAGIAK:

Krema egiteko:

Litro 1 esne

Laranja baten azala birrindua

Kanela zati bat

Arrautza gorringoak: 6

Azukrea: 200 gr.

Irina: 100 gr.

Peilak frijitzeko:

Arrautzak 3

Irina

Olioa

Kanela hautsa

Azukrea

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK:

Esnerari, kanela eta laranja azal birrinduarekin irakin behar zaio. Bitartean, gorringoak eta azukrea, ur hotzetan desengindako irinarekin nahastu. Jarraian, esne beroa gehitzen zaio. Guztia berotzen jarri, eta saltsa sendotu arte, behin eta berriz eragin behar zaio. Saltsa prest dagoenean, hotzitzen utzi behar da.

Krema hori hoztuta dagoenean, zatiak egin, irina eta arrautzatan pasatu eta olio berotan frijitzen da. Frijitutakoan, azukrea eta kanela hautsa botatzen zaio gainetik.

“El Menu de Argiñano” liburutik egokitua



**MIREN**

*Chunak eta beritasunak*

*salneurri bereziak*

Murubide, 1 ♦ 79 67 97

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 79 61 42

**BEGIBO**

**optika**

Loramendi, 10

☎ 79 93 21

**Iber**

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2

Tfnoa: 79 79 24





# A

ratuste domekak ez du horrenbesteko historia gure herrian, izan ere, demokraziarekin batera berreskuratu zen mozorrotzeko ohitura, Francoren garaian debekatua egon ondoren. Hogeitabat urtetako historia laburra duela esan daiteke beraz. Gure herrian bestalde, azken hamar urtetan gero eta indar eta arrakasta handiagoa hartu du domekako jaiak.

Hasieran Mari Nati Olabek gogoan duen moduan, oso jende gutxi mozorrotzen zen, "lau katu mozorrotzen ginen" azaltzen du. Natiri umetatik gustatu izan zaio mozorrotzea, baina debekatua egotean aukera gutxi izan zituen. Hala ere, demokrazia hasi zenean, lehenetarikoa izan zen trapu zaharrak jazen. Horregatik, badaiki erropa zaharrak gordetzen, gero egunen batean behar baditu ere, erabili ahal izateko.

Normalean edozein trapu zahar erabiltzen zen mozorrotzeko, garrantzitsuena ondo pasatzea baitzen. Igitano jantzi zireneko urtea gogoratzen duten bakoitzean esaterako, barre galantak egiten dituzte. Urte hartan anekdota bitxia gertatu zitzairen. Arantxa Garairen etxean goizean-goizetik elkartu ziren dena gertatzeko, baina itxura denez, astoa "karrora" txarto lotu eta kalean zeudela honek hanka egin zien. Gero, ez dakit mendeku gisa edo, arbolara lotuta eduki zuten eguzki-eguzkitan bazkaldu bitartean.

Argazkia orain 10 urtekoa da, 1988koa. Trajeak Agustindar monjek egindakoak dira. Argazkikoak: **Mari Nati Olabe**, **Mari Carmen Bengoa**, **Mari Carmen Olabe**, **Arantxa Garai**, **Mari Nati Olabe** eta **Ana Mari Iñurrategi**.

Argazkia eta informazioa: Mari Nati eta Mari Carmen Olabe.

**LANA**

◆ Emakume euskalduna behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 10 62.

◆ REMeko 3. mailako giza-zientzia arloko matematikak emateko pertsona behar da. Deitu 79 71 32 telefonora.

◆ Pertsona bat, emakumea hobe, behar da ordu batzutan umeak zaintzeko. 79 67 26.

◆ Emakume euskalduna behar da ume bi zaintzeko (arratsaldeko 8etatik aurrera deitu 77 11 85 telefonora).

◆ OHoko klase partikularrak ematen dira. Deitu 79 97 08 telefonora.

**Lanpostu publikoak**

◆ Liburuzain laguntzaile bat kontratatu nahi du Arrasateko Udalak, aldi baterako eta egun erdiz, Santamaina auzoko liburutegian lan egiteko. Epea: otsailak 23.

◆ Getxoko Udala. Europako hainbat proiekturen koordinatzailea eta idazkaria. Epea: otsailak 23.

◆ Osakidetza. Hainbat lanpostu: Pediatra, Osasun gestiorako medikua, larrialdi zerbitzuetako medikua, liburuzaina, Ospitaleko larrialdi zerbitzuetako medikua,



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**

botikaria, fisikoa, medikuak... Epea: Otsailak 21.

**ETXEBIZITZA**

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrera).

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 79 47 62.

**DENETARIK**

◆ Merkatu plazan, urre koloreko erlojua aurkitu nuen otsailaren 9an. Artiach markakoa. Tfnoa: 79 72 77 (deitu 9etatik aurrera).

**LEHIAKETAK**

**Arabako Foru Aldundiak antolatutako lehiaketak:**

- ◆ VII. Arte Plastikokoetako Amarika anuala. Epea: otsailak 28.
- ◆ Ignazio Aldekoa XXVII. Ipuin lehiaketa. Epea: irailak 24.
- ◆ Sorkuntza Historikoaren IV. Lehiaketa, literatura modalitatean eta modalitate grafikoan. Epea: azaroak 30.
- ◆ Becerro de Bengoa X. literatura sariketa. Epea: urriak 1.
- ◆ Ernestina de Cahmpourcin IX. poesia lehiaketa. Epea: urriak 1.
- ◆ B. Arratibel eskulangintza lehiaketa. Epea: abenduak 17.

**BEKAK**

- ◆ Arabako Aldundia: Arte plastikoetan hobetzeko bekak. Epea: otsailak 20.
- ◆ Arabako Aldundia: Museoetan lan egiteko bekak. Epea: otsailak 28.
- ◆ Mapfre fundazioa: elbarrituentzako formazio bekak. Epea: martxoak 31. Eskaria honako helbidera bidali: Fundación Mapfre. Dpto. de Readaptación. Apdo. 36273. 28080 Madrid.



Basabe Poligonoa A-15  
79 34 28  
**ARETXABALETA**

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

**ARETXABALETA**

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# Aratusteak

## Zubizarreta, Garikoitz Iturbe eta Iban Dasilbak.

Azken hauek, "trago batzuk beranduago", arratsaldean azkenengo aldiz dantzatuko dute plazan. Beraz, beraiekin dantzatu nahi duzuen neskok hor izango duzue azken aukera.

Eta gauean txaranga izango da kalean. Bakoitzak ahal duen moduan bukatu dezala domeka.

**Kepa Urrak** ez du domekan Atxabaltan egoteko aukerarik izango eta otsailaren 13an bere urtebetetzea izan zenez, zorionak bidaltzen dizkiogu hemendik.

Beste kontu batzuetara pasatuz, esan behar da, **Iker Aranburuzabala** dela Gazte Taldeak antolatutako duen logotipo lehiaketako irabazlea. Iker mondrauetarra da, gainera lehiaketara aurkeztu den kanpotar bakarra. Hau da marka! Dena dela, aurkeztutako lanen maila ona nabarmendu dute antolatzaileek.

Sariekin jarraituz, **Inaxio Galdosek** Aretxabaleta saria 97 jaso zuen. Inaxio indioekin batera hara eta hona dabil egun hauetan eta hilaren 21a arte gure artean izango dugu. Egundak hauetan Euskal Herriko hainbat txoko bisitatu dituzte eta komunikabideak gainean izan dituztela aipatu behar da. Aurrekoan esaterako, Bertatik Bertara programan agertu ziren. Gainera, Ardantza lehendakariaz ere egon dira. Inaxiori animoak bidaltzen dizkiogu hemendik bere lan horretan orain artean bezala jarrai dezan.

Gaurkoz nahikoa da eta badakizue ondo pasatu aratusteetan eta gutxi gastau ahal baduzue behintzat.



Gaur eguen gizona, bihar eguakotx argala, zapatua erregularra eta domekan atxabaltan behintzat aratusteak. Aratusteak urtero moduan ekintzaz beteta datoz. Hasteko zapatuan antzerkia dago Zaraqian "**La Kabra tira al monte**" **Karra Elejalde** aktore ezagunaren eskutik. Sarrera salmenta oso ondo doala esan didate, beraz, ikustea gura duzuenok aguro ibili.

Domekan beti bezala giro alaian txino dantza egingo da eta aurten usadioa aldatu egingo da. Lehenengo aldiz bi emakumek hartuko dute parte, **Igone Zaloña** eta **Laura Perezek**. Ea alardetakoek ere zerbait ikasten duten. Hauez gain, txino dantza Santa Ageda mutilek dantzatuko dute aurten, horien artean, **Ekaitz Filarmendi**, **Ander Arieta-leanizbeaskoa**, **Ibai Landaluze**, **Iñaki Lete**, **Beñat Lezeta**, **Igor Dublan**, **Asier Dublan**, **Aitor**



## Gure poesia: antologia

Juan Kruz Igerabideren antologia

Jokin Mitxelena-ren irudiak

Anaya Haritza, 1997

(Liburu zopa; 1)

## Liburutegiko txokoa

**J**uan Kruz Igerabidek eginiko XX. mendeko euskal poesiaren antologia honekin Anaya Haritza argitaletxeak "Liburu zopa" sailari hasera eman dio.

Haurrei zuzendutako poesiak dira eta kasu batzuetan ulergarriago egiteko Igerabidek bertsio egokitua ematen du lehenik eta ondoren bertsio originala. Zortzi izan dira aukeratutako poetak: Lizardi, Orixo, Lauaxaeta, Oxobi, Mari Jeanne Minaberri, Nemesio Etxaniz, Mirande eta Aresti.

Liburuaren azken aldera egileen bizitza eta obrari errepaso labur bat egiten zaie banan banan eta edizio honetako ilustrazioen egilearekin eginiko solasalditxo bat ere agertzen da.

Poesiaren munduan murgildu eta euskal literatura ezagutzera emateko liburu aproposa duzue honako hau, 10 urtetik gorako irakurlearentzat gomendagarria oso.

Joseba Lopez de Armentia

OTSAILA


19  
eguna

**HITZALDI ZIKLOA**

Gurasoei zuzendutako hitzaldia Kurtzebarri eskolan. Gaia: Nera-bezaroko arazoak: prebentzioa eta orientazioa. **Iñaki Aporta**, Giza-Ahalmenaren garapenerako Institutuko zuzendaria denak emango du. Arratsaldeko 6,30ean hasita Kurtzebarri eskolako liburutegian.

**DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ESKOLAKO AURKEZPENA**

Dorletako Ama txirrindulari eskolak 98ko txirrindularien aurkezpena egingo du otsailaren 21ean. 10,30etan, Dorleta Santutegian Ama Birginari eskaintza. 11,30etan 98 denboraldiko txirrindularien aurkezpena Gure Ametsa jatetxean eta ondoren "lunch-a".



22  
domeka

21

zapatua

**ARATUSTEAK**

Egitaraua hamabostean behinen.

**SANTA AGEDA MUTILAK**

Aratuste domeka arratsaldean Santa Ageda mutilek azken dantza saioa eskainiko digute plazan. Arratsaldeko 7etan.

**ANTZERKIA**

Karra Elejalderen "La kabra tira al monte" antzerkia gaueko 10,30ean Zاراia zineman. Sarrerak aurrez, 1.000 pta. Arlutz, Gurea, Artano eta Kultur etxean. Takilan 1.200 pta.

**LA KABRA TIRA AL MONTE**



Karra Elejalde

26

eguna

**HITZALDI ZIKLOA**

Gurasoei zuzendutako hitzaldia Kurtzebarri eskolan. Gaia: Nola lagun diezaiekegun nerabeei identitatea sendotzen eta identitate pertsonalaren sentimendua indartzea. **Iñaki Aporta**, Giza-Ahalmenaren garapenerako Institutuko zuzendaria denak emango du. Arratsaldeko 6,30etan hasita Kurtzebarri eskolako liburutegian.

27

egukotxa

**HITZALDIA ETA BIDEOEMANALDIA**

Gaspe taldeak antolatuta, "ITOIZKO SOLIDARIOAK"-eko bi partaide etorriko dira hitzaldia ematera. Gaueko 10etan izango da baina lekua zehazteko dago oraindik.

24

martizena

**MARTIZEN ARATUSTEA**

Egitaraua hamabostean behinen.

Z  
I  
N  
E  
A



**ZUZENDARIA:** Sean Penn.  
**AKTOREAK:** Michael Douglas, Sean Penn, James Rebhorn, Deborah Kara Unger, Peter Donat...

**The game**

Nicholas Van Orten (Micheal Douglas), negozio gizon ahaltzuak, bere anaia Conradengatik (Sean Penn) bere bizitzako oparia jasotzen du. Entreenimendu modu berri eta misteriotu baterako sarrera da, non dena gal daitekeen erregela bakar batekin: ez dago erregularik. Van Orten jokua zertan datzan konturatzen denean, atzera egiteko berandu da jadanik.

## MARTXOA

7, 8

**ESKIATZERA IRTEERA**

Murrukixo M.E.ak **eski irteera** antolatu du Luz Ardidenera. Prezioa, bazkideentzat 9.500 pta. Bazkide ez direnentzat 10.500 pta eta langabetu eta ikasleentzat 9.000 pta. Izen ematea Murrukixoko loka-lean martizenetan 7,30etatik aurrera egin daiteke otsailaren 3a arte.

8

domeka

**MENDI IRTEETA**

Zaraia M.T.ak **Gazumera** irteera antolatu du. Goizeko 8,30etan irteera.

## ERAKUSKETAK

**OHARRA: PINTURA****ERAKUSKETA ATZERATU**

Margo lagunak taldeak antolatu duen ikasleen margo erakusketa atzeratu egin da aratuste osterarte. Erakusketa otsaileko azken asteburuan, hau da otsailak 28 eta martxoak 1 eta martxoak 7 eta 8an egongo da ikusgai euskal txokoa.



## IKASTARROAK

**SALOIKO DANTZAK**

Loramendi elkarteko Tril emakume taldeak saloiko dantza ikastaroa antolatu du, tango, salsa, balsa... Martxoaren 3tik aurrera emango da Kurtzebarri eskolan, asteartero 7,30etatik 9etara. Irakaslea: Natalio Maiztegi izango da. Prezioa: 2.500 pta hilero. Izen ematea Loramendi elkartean egin behar da otsailaren 27a baino lehenago. 20 lagun onartuko dira gehienez.

BEHARREZKO  
TELEFONOAK**Aretxabaleta**

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

Z A R A I A Z I N E M A

Otsailak 27, 28, martxoak 1, 2  
**THE GAME**

**Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15  
Domeka: 5etan (Umeen sesioa)  
7,30  
10,15  
Astelehena: 10,15

Aratusteetako astebukaeran  
ez da zinerik egongo



**Aurten lehendabiziko aldia da Aitor Orobengoa Santa Ageda mutilekin dantzatzen duena. Datorren domekan, txuri eta gorri jantziko da, eta ez da beraz ohiko moduan bere lagunekin mozarrotuko. Hala ere, Santa Ageda mutilekin batera irteteko irrikitan dago, aurrekoan oso ondo pasa baitzuen.**

**• Zer sentitzen da Santa Ageda mutilekin irtean?**

Oso ondo iruditzen zait Santa Ageda mutilekin irteeta eta gainera oso ondo pasatzen dut. Aurrekoan kalean abestu genuen eta aratuste domekan ere eurekin irtingo dut. Egia esan, oso ondo portatzen dira gurekin.

## “Santa Ageda mutilekin oso ondo pasatzen dut”

**• Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Dena; lagun asko egin ditut, eta okorkean dena gustatzen zait.

**• Nolakoa da Santa Ageda mutilekin pasatzen duzun egun bat?**

Goizean elkartu eta tabernetan ibiltzen gara, gero bazkaldu, eta arratsaldean plazan dantzatu ondoren txokolatada izaten dugu.

**• Non ikasi duzu dantzan, eta asko entsaiatu duzu?**

Dantzako klaseetan. Ez dut asko entsaiatu banakoa lehenagotik ere bagenekielako.

**• Urduri egoten zara dantzatzekoan?**

Hasieran bai baina behin dantzan hasita gero ez.

**• Zurekin batera zeintzuk izan dira dantzatu dufen beste mutikoak?**

Sei ibili gara aurten: Josu Gastañaga, Iñaki Uribebarria, Martin Antxia, Eñaut Kortabarria, Beñat Zamalloa eta ni.

**• Zergatik uste duzu mutilek bakarrik dantzatzen dutela banakoa?**

Dantza hori mutilentzako delako eta nire ustez dantza mota hori mutilek hobeto dantzatzen dute, neskek modernoago dantzatzen dute.

**• Santa Ageda mutil izateko baduzu gogorik?**

Bai, oraindik urte asko gelditzen zaizkidan arren.

**• Penarik ematen dizu ez mozarrotzeak?**

Ez, Santa Ageda mutilekin ondo pasatzen dut. Gainera martizenean zapata garbitzaile mozarrotuko naiz.

**• Zer da eskolatik gehien gustatzen zaizuna, eta gutxien?**

Gehien errekreoa. Ikasgaietatik artistika eta gutxien matematika.

**• Eskolatik kanpo zer egiten duzu?**

Kirola, ingelesa, sasfoia, solfeo eta dantza.

**• Zein da irakurri duzun azken liburua?**

Komikiak irakurtzen ditut, Mortadelo eta Filemon gustatzen zait.

**• Zein da ikusi duzun azken pelikula?**

Titanic, oso polita da.

**• Zer izateko gustatuko litzaizuke haundia zarenean?**

Futbolista.

**• Zertaz idatziko zenuke ipuin bat?**

Abenturazko, beldurrezko eta misteriozko ipuina idatziko nuke.

**• Zein da gehien gustatzen zaizun janaria, eta gutxien?**

Gehien espagetiak, gutxien, berriz, arraina.

## KOMIKIA

### EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



BERTSOLARI  
AFLAMENCAO,  
PELOTARI LATINO...  
QUEN TENHA  
ALGUN REPARO  
QUE LLE FAGA NUDOS  
O KAIKU  
¡HASTA FOGARSE!  
(Julio Kageta)

# KURTZEBARRI ESKOLA

Atxabaltan, bertan,  
daukazun aukera

2tik 16 urtera bitartean



## AURREMATRIKULA EPEA IREKITA

- ◆ 2 urtekoentzat
- ◆ LEHEN HEZKUNTZAkoentzat
- ◆ 3 urtekoentzat
- ◆ DBHkoentzat

2.074.000 pta  
"Plan Prever"-en sarturik

**BENETAKO  
LIDERRA!**

*Mondeo*

*Mondeo*

Arba Etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel: 79 07 44 / 54

Fax: 79 62 54

**MUGARRI**

